

«Memoria bizia» saritu dute

‘Francoren bilobari gutuna’ antzezlanak jasoko du, martxoaren 27an, Donostia antzerki saria

Mikel Lizarralde Donostia

«Hasiera-hasieratik euskaraz eta Euskal Herri osoko aktoreekin landutako antzezlanak da [Francoren bilobari gutuna], eta prozesu hori ere errekonozitzen du sari honek. Lan egiteko moduak berak asko eragin du emaitzan, eta horren aitortza ere bada». Donostia antzerki saria jasoko du Artedramak, Dejabu Panpin Laborategiak eta Le Petit Theatre de Painek sortu duten antzezlanak, eta Manex Fusch aktore eta Le Petit Theatre de Paineko kideak obraren sorkuntza prozesua bera nabarmendu nahi izan zuen, atzo, sariaren berri emateko agerraldian: «Elkarlana izan da». Hiru konpainia, hiru lan egiteko modu, helburu bakararekin. Eta sakondu du Urko Pescador Dejabuko kideak: «Hiru konpainia gara, eta bakoitzak bere hizkuntza propioa dauka. Bere konpromisoa eta bere bilaketa estetikoak. Baina, hiru konpainiak elkartuta, lengoia bakarra garatzen dugu».

Donostia Kulturak eta Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak ematen dute, 2001az geroztik, Donostia antzerki saria, eta aurreko urtean Gipuzkoako hiri-buruan estreinatuta diren helduentzako euskarazko antzezlanek izaten dute saria jasotzeko aukera. Iaz hemezortzi lan eman zituzten –besteak beste *Heroiak* (Txalo), *Oskara* (Kukai), *El Florido Pensil*, *neskak* (Tanttaka), *Putinen guardasola* (Ramon Agirre eta Inazio Tolosa), *Zerura eroria* (Anodino), *Koaderno zuri* (Hika) eta *Lu eta Le* (Ados)–, eta orotara 47 emanaldi izan ziren. Ikusleak, berriz, 10.896, Donostia



Ander Lipus, Urko Pescador, Irantzu Azpeitia eta Manex Fuchs, atzo, Miren Azkarate Donostiako Udaleko Kultura eta Euskara zinegotziarekin. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Kulturak berak emandako datuen arabera.

Artedramak, Le Petit Theatre de Painek eta Dejabu Panpin Laborategiak martxoaren 27an, Antzerkiaren Nazioarteko Egunean, jasoko dute saria Donostiako Viktoria Eugeniaren. Aurten saria 2.000 euro handituko da, eta, beraz, irabazleek 12.000 euro eta Iñigo Manterolaren eskultura bat jasoko dituzte. 10.000 euro orain eskuratuko dituzte, eta gainerako 2.000 euroak jasotzeko, 2019. urtea bukatu aurretik euskarazko antzerki lan berri bat eman beharko dute Donostian.

Hiru konpainiek elkarrekin egindako beste obra batek

(*Errautsak*) saria irabazi zuen 2011n, eta haietariko bakoitzak ere jasoa du saria beste urte batzuetan. Iaz, berriz, Ados Teatroaren *Maitasunaren ostein*, *maitasuna*-k irabazi zuen.

«Ikerketa lan sakona»

Ximun Fuchs antzerkigileak *Errautsak* obra osatu zuen lantaldari bidalitako mezu elektronikoko bat da *Francoren bilobari gutuna*-ren abiapuntua. Han proposamen bat egin zion taldeari, eta ideia hari tiraka idatzi zuten antzezlan Igor Elortzak eta Unai Iturriagak. Ximun Fuschek berak zuzendu du antzezlanak, eta aktore lanetan aritu dira Ander Lipus,

Patricia Urrutia, Manex Fuchs, Zoila Berastegi, Urko Pescador, Pako Revueltas eta Erika Olaizola. Nolanahi ere, lan kolektibotzat jo izan dute beti *Francoren bilobari gutuna*. Obrak gai ugari jorratzen ditu –frankismoaren oroimena eta herentzia, gizartearen osasuna–, ospitale batean elkartzen diren pertsonaien bitartez.

Donostia antzerki sariko epaimahaia Eriz Alberdik (Aisge), Javier Arbillaga eta Maitane Goldarazena publikoaren ordezkariak, Amagoia Lauzirrikak (Euskal Aktoreen Batasuna), Ritxi Lizartza itzultzaileak, Beñat Sarasolak (Ehaze), Frank Suarezek (EKE) eta Jaime Valverde antzerki kriti-

kariak osatu dute, eta haiek nabarmendu dituzte antzezlanaren «sorkuntza lan bikaina», eta baita gaia lantzeko egindako «ikerketa lan sakona» ere. Epaimahaiaren iritziz, «obran frankismoaren ikuspegi zabal eta plurala erakusten dute, gai asko batera landuz. Iraganaren presentzia erabatekoa izan arren, orainean jartzen du arreta eta garatzen da ekintza». Antzezlaneko istorioak, eszenak eta erritmo narrati-boa «maisuki» bideratuta daude epaimahaiaren iritziz. Azkenik, haren ustez, «antzezlan hau gure memoria bizia da, eta antzerkiak bakarrik gorpuztu dezake horrela».

Oiartzun handia izan du *Francoren bilobari gutuna*-k urriaren 31n Luhuson estreinatuta zutenetik, eta dagoeneko 30etik gora emanaldi egin dituzte Euskal Herri osoan. Ekainera bitartean jarraituko dute, hiru konpainiek euren buruari inposatutakoak betetzeko. «ez eternizatzea», Lipusek azaldu duenez. «Euskaraz lan eginda, gure espazioa mugatua da, Euskal Herria».

Euskal Herria dute helburu, eta nabaritu dute obra honekin aurrerapauso batzuk eman dituztela. Donostian bost egunez bete zuten Gaztesena aretoa, eta Bilbon, Arriagan, berriz, asteburuan eman ahal izan zuten antzezlanak, euskarazko lanentzat erraza ez dena. «Saririk onena hori da, publikoa, hori gabe ez baitago antzerkirik». Lipusek uste du obrarekin «jauzi bat» eman dutela, egon diren leku guztietan antzerkiak bete egin direlako.

Euskaraz lan egiten dute, «politikoki» lan egin ere, eta horrek, adibidez, itxi egin die Baionako Eszena Nazionaleko oholtza. Azpidatziak erabiltzeari uko egin diote. Manex Fuchs: «Badira, oraindik ere, gaztelu batzuk itxiak gelditzen zaizkigunak. Baina sari honek laguntzen digu, laguntzen digu erronkak betetzen».

Bihar berria



ARANTXA ITURBE

‘Koaderno zuri’

eleberraren aurrerapena



berria